

2020KO ABENDUAREN 9KO OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeiko abenduaren bederatzian.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.

Jule Aranburu Mariezkurrena.

Erkuden Agirre Arruabarrena.

Aitor de Astobiza Uriarte.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

EZ BERTARATUTAKOAK:

Iñaki Zabalo Echezarreta

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko 19:00etan

HAMAIERA ORDUA: Arratsaldeko 20:00etan.

GAI ZERRENDA

- **Aurreko bilkuretako akten onarpena, hala badagokio: 2020ko irailaren 30eko Ohiko Bilkurari, eta 2020-10-28ko Ezohiko Bilkurari dagozkien aktak.**

Aipaturiko aktak aurkezten dira Bilkura honetan onartzeko.

Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu dira.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:

- Alkatetzaren ebazpenak: 2020ko 13 zenbakitik 20. zenbakira.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira.

- **2019ko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorraren espedientea behin betiko izaeraz onartzea.**

Ikusirik Udal honetako Kontu Batzorde Bereziak, 2020ko urriaren 14an eginiko bileran bere oniritzia eman ziola 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren Kontu orokorrari.

Ikusirik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoa jarraituz, hamabost eguneko epean jendaurrean egon zela txosten hori, inongo erreklamazio edo oharrik aurkeztu gabe epe horretan (iragarkia 2020ko ekainaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Kontutan hartuta 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, 2019ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra Udal Osoko Bilkurari onartzea dagokiola.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau

ERABAKI DU :

LEHENA: 2019ko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorraren espedientea behin-betiko izaeraz onartzea.

BIGARRENA: Kontu Orokorraren onarpenaren berri ematea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, bere erregelamendu propioek ezartzen dutenaren arabera.

Honekin lotuta idazkari-kontuhartzaileak adierazten du 2019ko aurrekontuaren likidazioaren datuen arabera, entitate honek ez duela betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua. Ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu denez, legean xedatutako komunikazioa helarazten dio Udal Osoko Bilkurari dagokion txostenarekin batera

- **2020/02 Kreditu Aldaketa Espedientea hasierako izaeraz onartzea.**

2020/02 Aurrekontuaren Kreditu aldaketak ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, hasierako onarpenerako aurkezten da. 2020/02 espedientea kreditu gehigarriak onartzeko da eta jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

Kreditu Aldaketa espediente honen helburua da gastuetan negatibon geratu diren partidei dagokien kreditua aurreikustea. Proposamen hau aho batez onartzen da.

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Ez dago.

- **GALDE-ERREGUAK**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.

Nik, Martin Iparragirre Mujikak, Gipuzkoa Lurralde Historikoko Mutiloako Udaleko idazkari-kontuhartzaileak,

ZIURTATZEN DUT:

Udal Osoko Bilkurak, 2020ko abenduaren 9an eginiko Ohiko batzarrean, besteak beste, letraz letrazko erabaki hau onartu zuela:

HIRUGARREN PUNTUA:

2019KO KONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEA BEHIN-BETIKO IZAERAZ ONARTZEA.

Ikusirik Udal honetako Kontu Batzorde Bereziak, 2020ko urriaren 14an eginiko bileran bere oniritzia eman ziola 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren Kontu orokorrari.

Ikusirik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoa jarraituz, hamabost eguneko epean jendaurrean egon zela txosten hori, inongo erreklamazio edo oharrik aurkeztu gabe epe horretan (iragarkia 2020ko ekainaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Kontutan hartuta 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, 2019ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra Udal Osoko Bilkurari onartzea dagokiola.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau

ERABAKI DU :

LEHENA: 2019ko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorraren espedientea behin-betiko izaeraz onartzea.

BIGARRENA: Kontu Orokorraren onarpenaren berri ematea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, bere erregelamendu propioek ezartzen dutenaren arabera.

Honekin lotuta idazkari-kontuhartzaileak adierazten du 2019ko aurrekontuaren likidazioaren datuen arabera, entitate honek ez duela betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua. Ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu denez, legean xedatutako komunikazioa helarazten dio Udal Osoko Bilkurari dagokion txostenarekin batera

Mutiloa, 2020ko abenduaren 9a

O.E.
ALKATEA